

BEZEROEKIKO HARREMANAK:

Bezeroen harremanak sustatzeko, laguntza pertsonal eskainia erabiliko dugu, internet bidez, haiek dituzten dudak edo galderei konponbidea emateko. Gainera ere, dendetan harreman pertsonala eskainiko dugu, hau da, aurrez aurre egongo gara etxean Interneta ez duten pertsoneri edo Interneta erabiltzen ez dakiten pertsona helduei ere lagundu ahal izateko.

Email bat ere jarriko dugu bezeroen eskura, enpresa eta haien arteko harremana errazteko. Bezeroen arretarako zenbaki bat ahalbidetuko dugu gainera, eta hau gure webgunean aurkitu ahal izango da.

Bezeroak erakartzeko publizitatea erabiliko dugu, eta gure produktua ahalik eta egokien islatuko dugu bertan. Salmenta ona bada, hau sustatzeko pizgarriren bat jar dezakegu.

